

2015

MUSIKA

Donostia Kultura, Musikaren emanaldiei eta hedapenari dagozkien ekintzetan hainbat eta hainbat agertoki, lankidetzak, proposamen eta estilo izaten dira tartean. Dagokion atalean adierazi denez, **Victoria Eugenia Antzokiaren** programazioak eskaintza horretako proposamenik interesgarrienak bildu ditu 2015ean. Hona hemen izen batzuk: **Pablo Milanés, Leiva, Revolver, Ismael Serrano, Dire Straits tribute band: Brothers in Band** eta **The Musical Box Project Genesis: Selling England by the pound** ikuskizunarekin. Euskal musikaren atalean, Oskorri bere **Hauxe da despedidea** kontzertuarekin, 45 urtez jardun ondoren; **Ruper Ordorika, Kukai Adiskideak** musika-ikuskizunarekin, **Izaki Gardenak, Skasti, Naroa, Gaintza Agustin Alkhat** eta **Olatz Zugasti**, besteak beste.

Nabarmentzekoak, halaber, **Jaso Ikastolaren Invoc4tion** musikala eta **Adarra Sariaren** bigarren edizioa, non **Ruper Ordorika** musikariaren ibilbidea saritu baitzen.

2015ean, 100 urte bete ziren **Jose Maria Usandizaga** hil zenetik, eta, horren harira, Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Eresbil Musikaren Euskal Artxiboaren eta Kursaal Eszenaren eskutik, programa bat diseinatu zen konpositorearen irudiaren inguruan. Era askotako jarduerak osatu zuten, haren lanaren askotarikoa eta tamaina islatu nahian. Izan ere, pieza erabat klasikoak ditu piano, organo edo abesbatzentzat, baina baita herri-musikatik gertuago daudenak ere, hala nola txistuarentzat idatziak. Victoria Eugenia Antzokiak jarduera horietako zenbait hartu zituen; besteak beste, **Las Golondrinas** opera.

Horrez gainera, oso nabarmentzekoa da programazio hori ahal izan zen neurrian bertako eragile, agentzia eta elkarteekin batera gauzatu zela.

Antzoki Zaharrean, berriz, zazpi musika-emankizun eskaini ziren, artista nabarmenenak: **Amancio Prada, Elliot Murphy, Mikel Urdangarin**, eta **Al Turaz Al Andalusí: Siria Kultura** izeneko kontzertua.

Donostia Kulturako Musika Departamenduak programatzen du **Kursaal Fundazioaren** Herri Musika saila. 2015ean, **9 entzukizun** izan ziren. Horietatik, bost Euskal Musikakoak. Nazioarteko poparen sailean, **Joe Satriani, James Taylor, Neneh Cherry, Marc Ribot, Dulce Pontes** eta **Morodo**, azken hori entzule gazteei zuzendua, espazio berri baten barruan, zeinari oso harrera ona egin baitzioten entzuleek.



Genesis: Selling England by the pound



Jose Mari Usandizagaren heriotzaren mendeurreneko ekitaldi sorta.



Ruper Ordorika

2015ean, bi kontzertu egin ziren **Txiki Jazz Kluba** programaren barruan, zeinak familientzako kontzertuak sustatzen baititu. Victoria Eugenia Antzokiko Areto Nagusian, Rock'n'Kids eta New York Voices-en emanaldiek osatu zuten programazioa. Bigarrenek programa bikoitza eman zuten, familientzat goizean eta helduentzat arratsean.

Bestalde, aipatzea komeni da lankidetzaren itunak eta akordioak egin direla Donostiako musika-erakundeekin: Musikene, EGO, Euskadiko Orkestra, Cultura Musical elkarteak, Musikagileak, Francisco Escudero Kontserbatorioa, Udalaren Musika eta Dantza Eskola; eta hartara estutu egin direla musikaren alorrean diharduten erakundeen arteko harremanak.

Orobat, Departamendu honen esku dago **Heineken Jazzaldia**ren programazioa ere; 2015ean, **50. edizioa** egin zen, eta arrakasta handia izan zuen entzuleen eta kritikaren aldetik. **124.000 entzule baino gehiago izan ziren 100dik gora kontzertuetan**, uztailaren 22tik 26ra bitarte.

- 62** kontzertu sustatu zituen musika unitateak, zein bere kokagunean; besteak beste,
 - 33** kontzertu Victoria Eugenia Antzokian (Aretu Nagusia),
 - 13** kontzertu Victoria Eugenia Club Aretokian, eta
 - 7** kontzertu antzoki zaharretan.
- horra 2015eko balantzea, hitz gutxitan.



Elliot Murphy



Zaz